

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure enpresan, aurkezpenean aipatu dugun bezala, euskal produktuak erosi eta saskiratu egingo ditugu. Honekin, kanpoan dauden Euskaldunek hemengo produktuak eskuragarri izango dituzte, horrela hauek gozatzeko aukera ere edukiko dute. Era berean, produktuak erosterakoan irabazitako etekinetako portzentaje bat Argentinan dauden arazo ekonomikoetan laguntzeko erabiliko dugu, beraz bertako zenbait arazo konpontzen ere saiatuko gara, diru horiek Euskal Etxeetan inbertituz.

Nahiz eta gurea bezalako hainbat enpresa egon, eta, beraz, ez duenez inolako berritasunik, gureak badu zerbait beste lehiakideengandik bereizten gaituena; esate baterako, gure enpresan euskal produktuak ez ditugu soilik Euskal Herrian salduko, baizik eta munduan zehar hedatuko ditugu Argentinako euskal etxeetatik hasiz, munduan zehar gehienak bertan daudela kontuan hartu baitugu; hots, gaur egun 65 aurki ditzazkegu. Geroz eta famatuagoa egiten den eñean, herrialde gehiagoetan zehar sakabanatuko ditugu gure saskiak. Hori gutxi balitz, gure web orriaren bidez eskuragarritasuna, erabilerraztasuna eta lana erraztuko dugu, bertan, gure bezeroak gure produktuei buruzko informazio guztia izango baitute eta arazo edo zalantzaren bat izanez gero, gurekin kontaktatzeko ahalmena izango dute eta. Bestalde, honekin lortzen ditugun etekinen portzentaje txiki bat eroslearen herrialdean dituzten arazoetan laguntzeko dohaintza egingo dugu, horren ondorioz, bezeroek gure zerbitzua aukeratuko dute.

Aipatu bezela, hiru saski tamaina desberdin izango ditugu, gutxi gorabehera erosleak bertan inbertitu nahi duenari egokitzeko helburuarekin. Gure saskiak gugandik diseinatuak izango dira, hau da, guk prestatuko ditugu, eta gu geuk ere bidaliko ditugu. Horregatik, edozein arazo izanez gero, saski berarekin edota entregarekin, gurekin harremanetan jartzeko gai izango dira arazoak lehenbailehen konpondu ahal izateko; beraz, gure zerbitzuak erabateko segurtasuna duela ziurta dezakegu.

Azkenik, gure zerbitzuaren balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da; izan ere, lortzen ditugun produktuak kalitate hoberekoak izateaz gain, prezioaren aldetik ere onenak izango dira, bezeroentzako prezio merkeenak eskainiko ditugulako, enpresek deskontuak egingo baitizkigute.

